

XL Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irún 2011

POESÍA • NOVELA



BASES

Al objeto de fomentar la creación y difusión literarias, Kutxa Caja Gipuzkoa San Sebastián convoca los XL Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irún, correspondientes al año 2011, de acuerdo con las siguientes bases:

1. El certamen está abierto a la participación de escritores en lenguas vasca o castellana, independientemente de su nacionalidad o lugar de residencia, quienes habrán de concurrir con obras originales e inéditas, no premiadas en otro concurso literario de cualquier naturaleza o lugar, condiciones que deberán mantener hasta el momento del fallo. A estos Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irún no podrán presentarse ni quienes hayan sido o son Jurados de los mismos, ni autores ganadores de ediciones anteriores en la modalidad en la que hubieran concurrido.
2. Los trabajos habrán de presentarse en hojas de formato DIN A 4 (o formato letter en el sistema de medidas anglosajón) mecanografiadas -o a ordenador-, a doble espacio de interlineado, con letra tipo Arial o similar y tamaño de fuente 12, siempre por una sola cara. Se deberán remitir dos copias en el apartado de novela y cuatro en el de poesía a: "Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irún 2011", GUDAT, Gurutzegi bidea 14-18, Polígono Industrial Belartza, pabellón 9, 20018 Donostia-San Sebastián. Exclusivamente para información: teléfono 943.000.850; e-mail certamenes@begira.com; página web www.kutxasocial.net. El plazo de admisión de obras se cerrará el 30 de septiembre de 2010.
3. Las obras deberán identificarse solamente con su título. Carecerán por tanto de detalles que puedan identificar al autor. En la plica, en sobre cerrado aparte, se incluirá nota con Documento Nacional de Identidad, nombre, apellidos, dirección y teléfono del autor, fax y e-mail si los tuviera, mencionándose en el exterior el título de la obra, además de la especialidad a la que concurre.
4. Kutxa designará los Jurados para las distintas especialidades, siendo su fallo inapelable. El hecho de participar en estos Premios Literarios implica la aceptación de sus bases. Todas las incidencias no previstas en estas bases serán resueltas por los respectivos Jurados.

5. La determinación de las obras ganadoras, la apertura de plicas y la proclamación de ganadores, tendrán lugar en Irún, el 26 de febrero del año 2011, a las 13:00 horas. Dicho acto será retransmitido en directo por internet, a través de la página web www.kutxasocial.net. La entrega de todos los premios, se llevará a efecto en un acto que se celebrará entre los meses de mayo y junio del mismo año.
6. Cualquiera de los premios podrá ser declarado desierto si los trabajos presentados no tuvieron el nivel de calidad requerido. No será considerada por el Jurado correspondiente ninguna obra de la que se tenga noticia que haya sido premiada en otro Concurso en el período comprendido entre el término del plazo de admisión de las obras y la fecha del fallo de los Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irún 2011.
7. En este sentido, será obligación del autor comunicar por escrito cualquier variación surgida respecto a la obra presentada durante el período de tiempo detallado en la Base 6, dirigiéndose a: **KUTXA – CAJA DE GUIPUZCOAY SAN SEBASTIAN** – Cultura – Garibai, 20, 20004, Donostia-San Sebastián.
8. Asimismo, ninguna obra seleccionada por el Jurado podrá ser considerada ganadora con carácter definitivo hasta no haberse comprobado el cumplimiento de todas las condiciones requeridas para ello y expresadas en los puntos 1 y 6 de estas bases.
9. Kutxa se reserva en exclusiva el derecho de edición de las obras premiadas (directamente o por medio de otra empresa editorial) durante el plazo máximo de un año, contado desde el momento de la publicación de las obras premiadas, sin devengo de derecho alguno a favor de los autores. Transcurrido dicho plazo, los autores dispondrán de sus obras libremente, pero en posteriores ediciones de las mismas deberá consignarse la distinción concedida, independientemente de la empresa editorial en que se lleven a cabo dichas ediciones.
10. Las obras no premiadas, así como sus correspondientes plicas, no serán devueltas, siendo destruidas después de la proclamación de ganadores de los Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irún 2011. No se mantendrá correspondencia con los autores de las obras presentadas, ni se proporcionará información sobre los títulos seleccionados, en su caso, por los prejurados.

PREMIOS

Los Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irún 2011 se convocan en las siguientes especialidades:

POESÍA EN CASTELLANO

Para obras con libertad de rima, medida y temática y una extensión mínima de 800 versos.

Premio:
Trofeo y 15.000 euros.

POESÍA EN EUSKERA

Para obras con libertad de rima, medida y temática y una extensión mínima de 800 versos.

Premio:
Trofeo y 15.000 euros.

NOVELA EN CASTELLANO

La extensión mínima de los trabajos será de 150 folios con temática y narración libres.

Premio:
Trofeo y 25.000 euros.

NOVELA EN EUSKERA

La extensión mínima de los trabajos será de 150 folios con temática y narración libres.

Premio:
Trofeo y 25.000 euros.

Premios exentos del I.R.P.F. Exención concedida por la Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa.

Irun Hiriko Kutxa XL.Literatur Sariak 2011

OLERKIA • ELEBERRIA



OINARRIAK

Sorkuntza eta hedapen literarioa sustatzeko xedearrekin, kutxak, Gipuzkoa Donostia Kutxak, 2011 urteari dagokion XL. Irun Hiriko Kutxa Literatura Sarietarako deialdia egiten du, honako oinarri hauen arabera:

- 1
Lehiaketa zabalik dago euskarazko nahiz gaztelaniazko idazleentzat, edozein delarik berorien nazionalitatea edota bizilekua; lan originalak eta lehendik argitaragabeak eta beste inolako edo inongo literatura lehiaketatan saririk irabazi gabeak aurkeztu ahal izango dira Lehiaketara eta baldintza hauek guztiak indarrean iraungo dute epaia ematen den unera arte. Irun Hiriko Kutxa Literatura Sari hauetara ezin izango dira aurkeztu inoiz Lehiaketan Epaimahaikide izandakoak, ez gaur egungo Epaimahaikideak, ez eta orain lehiatu nahi lukeen modalitatean aurreko edizioen batean parte hartu eta irabazle izandako idazleak ere.
- 2
Obrak DIN-A4 formatuko orritan aurkeztuko dira (anglosaxoiaren sistemako letter formatua ere onartuko da), makinaz mekanografiatuak –edota ordenagailuz–, tarte bikoitzarekin, Arial-12 edo antzeko letra tipoan eta alde bakarretik idatziak. Lan bakoitzaren bi kopia (eleberrri sailean) eta lau kopia (olerki sailean) bidali beharko dira, helbide honetara: "2011ko Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariak", GUDAT, Gurutzegi Bidea, 14-18, Berlatzako Industrialdea, 9 pabilioa, 20018–Donostia-San Sebastián. Hauek dira argibidetarako ez bestetarako helbideak: telefonoa 943.000.850, e-maila certamenes@begira.com eta www.kutxasocial.net webgunea. Lanak onartzeko epea, 2010eko irailaren 30ean itxiko da.
- 3
Obraren izenburua izango da ezaupide bakar. Ez da, beraz, egilea nor den antzemateko biderik eman dezakeen xehetasunik erakutsiko. Eta aparteko kartazal itxi batean sartuko da ohar bat, egilearen Nortasun Agiri Nazionala, izena, abizenak, helbidea, telefonoa, faxa eta e-maila –halakorik badu– adieraziko dituen; kartazalaren kanpoaldean, berriz, obraren titulua eta zein modalitatetara aurkezten den aipatuko da, besterik gabe..
- 4
Kutxak Epaimahai bana izendatuko du sail bakoitzerako, eta berorren epaia apelaezina izango da. Literatura Lehiaketa honetan parte hartze hutsak oinarri erabateko onespina adierazten du. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko gorabeheraren bat sortuko balitz, sailean saileko Epaimahaiak ebatziko du.

- 5
Lan irabazleen izendapena, plikak irekitzea eta saridunen aldarrikapena Irunen egingo da, 2011ko otsailaren 26an, 13:00 orduetan. Ekitaldi hori Internetez emango da zuzenean www.kutxasocial.net webgunearen bidez. Sari guztien banaketa, urte bereko maiatzaren eta ekainaren arteko egun batean egingo da horretarako espresuki prestatuko den ekitaldian.
- 6
Sarietako edozein gerta daiteke eman gabe, aurkeztutako lanek behar bezainbateko kalitate-mailarik ez baldin badute. Epaimahaiak ez dute aintzat hartuko 2011ko Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariaren onarpen-epemugatik epai-egunera bitarteko epealdian beste Lehiaketaren batean saritua izan den obrarik, horren berri jakinez gero.
- 7
Horrela, bada, egilearen betebeharra izango da aurkeztutako obraren inguruan eta 6. Oinarrian adierazitako epealdiaren barruan gerta daitekeen edozein aldaketaren berri ematea, idatziz, helbide honetara zuzenduz: **KUTXA – GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA – Kultura – Garibai kalea 20, 20004-Donostia.**
- 8
Berebat, Epaimahaiak hautatutako ezein lan ez da behin-betiko irabazletzat aldarrikatuko harik eta Oinarri hauetako 1. eta 6. puntuetan aditzera emandako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu arte.
- 9
Kutxak beretzat gordetzen du, epai-egunetik aurrera kontatzen hasi eta gehienez ere urtebeteko epearen barruan, lan sarituak argitaratzeko eskubidea (zuzenean edo beste argitaletxe baten eskutik), egileen aldeko inolako eskubiderik onartu beharrik gabe. Aipaturiko epe hori igaro ondoren, egileena izango da beren obrekiko eskubide osoa, baina, obra horien hurrengo argitalpenetan, irabazitako sariaren aipamen zehatza jaso beharko da, edozein delarik ere edizioa beren gain hartzen duen argitaletxea.
- 10
Saritu gabeko lanak eta hauei dagozkien plikak ez dira itzuliko, desegin baizik, 2011ko Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariaren aldarrikapena egin ostean. Aurkeztutako lanen egileekin ez da korrespondentziarik izango, eta aurre-epaileei dagokienez, hauek ez dute hautatuak izan diren tituluei buruzko inolako informazioirik emango.

SARIAK

Honako sail hauetarako daude deituta 2011ko Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariak:

EUSKARAZKO OLERKIA

Gutxieneko 800 bertsoko luzerako zeinahi errima, neurri eta gairi buruzko olerkientzat.

Saria:

Garaikurra eta 15.000 euro



GAZTELANIAZKO OLERKIA

Gutxieneko 800 bertsoko luzerako zeinahi errima, neurri eta gairi buruzko olerkientzat.

Saria:

Garaikurra eta 15.000 euro



EUSKARAZKO ELEBERRIA

Gutxieneko 150 folioko gai eta idazkera libreko narrazioentzat.

Saria:

Garaikurra eta 25.000 euro



GAZTELANIAZKO ELEBERRIA

Gutxieneko 150 folioko gai eta idazkera libreko narrazioentzat.

Saria:

Garaikurra eta 25.000 euro



Gipuzkoako Foru-Aldundiak egindako salbuespenari esker, Sari hauek ez daude P.F.E.Z. zergari atxikiak.